

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Lojendio, Villasante, Irigarai, Arrue, Mitxelena euskaltzaiñak. Aita Larrañaga, Alvarez Emparanza, Etxaniz eta Irigoyen urgazleak.

Oleaga jauna gexorik dago. Batzarrekoak al bait ariñen osatutea opa deutsie. Aurreko agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Aita Olabideren gorazarrea Martiko 15-ean egingo da Gasteizen, bera jaiotze egun berean.

Eskabide bat artu da Bedoña-tik bertako alkate eta parrokuak firmata eta baita Arechavaletako alkate, Mondragoeko Artzipreste eta berrogei euskaltzale geiagok. Diño Bedoñarren eta Mondragoeko eta Arechavaletako euskaltzaleen guraria Lora-mendik gerra aurrean Bedoñan eukan imaginea jasotea dala eta bide batez euskal jai eta poesia sariketa bat egitea, eta orretarako amar milla peseta inguru emongo leukiezala. Euskaltzaindiari eskatuen deutsie ia bera izango litzakean antolatzailea. Erantzun bekie baietz eta zeaztasun guztietarako Lojendio jaunagaz konpondu daitezala.

Lopez Mendizabal jaunak, argitaratu dauen liburu barriaren ale bat eskeiñi deutso Euskaltzaindiari. Eskerrak emon bekiotz.

Altube jaunak lan bat bialdu dau "Euskaltzaindiari" titulutzat dauena.

Bilboko Ayuntamientoak bost milla peseta eskeiñi deutsoz Euskaltzaindiari iztegi lanetarako.

J. Ziarsolo eta L. Torrontegui-k bialdu daben karta bat irakurri da. Diño Euskaltzaindiak Txinpartak-ren egintzen gaiñean finkatu dituen puntuak onartuten dituezala. Baita R. M. Azkue katedrakoakaz berba egin dabela eta berbaldi orretan erabagi dabela Txinpartak bere arautegiagaz jarraituko dauela. Irigoyen jaunak diño ez tala egia berbaldi orretan olangorik erabagi dabenik eta izan be R. M. Azkue katedrakoak ezeukien Euskaltzaindiak emoneko eskubiderik onek finkatu zituen puntuak onartuteko izan ezik. Erantzun bekie esanik edozer gauzatarako R. M. Azkue katedrakoakaz berba egin leiela eta onek konponduko direala Euskaltzaindiagaz eta aurrera eroan Euskaltzaindiari eta bere elburueri komeni jakiezan asmo guztiak.

Pedro Diez de Ulzurrun jaunaren karta bat irakurri da. Diño "Sección de Euskera de la Institucion Principe de Viana-k" eskaturik Nafarroako Diputaziñoak bost milla peseta emotea erabagi dauela "Txinpartak" jaialdi bi emon daizan Iruñean datorren ilean, Jakinerazo bekio R. M. Azkue katedreari. Ziarsolo ta Torrontegui jauneri idazten jakien kartan aipatu bekie zelan jakinerazo jakon R. M. Azkue katedreari arazo su.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.